

## EUSKARA ESKURA

Lana euskaraz egiteko edo euskaraz ikasi ahal izateko baliabideak gero eta ugariagoak dira gure inguruetan. Buruntzaldeko udalek eskaintzen dituztenak ere ugari dira eta ezagutu beharrekoak.

### Zure negozioan euskarari bere lekua egiteko laguntzak

**Web orria euskaraz diseinatzeko** edo programa informatikoak euskaraz erosteko asmoa baduzu, [Lasarte-Oriako](#), [Andoaingo](#), [Astigarragako](#) eta [Hernaniko](#) udalek diru laguntza eskuratzeko aukera emango dizute.

[Errotulu komertzialak euskaraz](#) jartzeko ere diru laguntza jasotzeko aukera dago Buruntzaldeko udal guztietan.

### Jarraitu Buruntzaldea twitterren

[@BuruntzaldeaEus](#) erabiltzaileak **237** jarraitzaile du egun. Zeu ere jarraitzaile egin zara?

Eskualdeko euskararen inguruko berriak jakin nahi badituzu edo eskualdeko udalek ematen dituzten laguntzen berri izan nahi baduzu, informazio bizia duzu twitterren.

Bestelakoak ere, lehiaketak, errezetak... bertan topatuko dituzu.

### Euskara ikasi edo hobetzeko momentuaren bila?

[Lasarte-Oria](#), [Andoain](#), [Astigarraga](#), [Hernani](#), [Usurbil](#) eta [Urnietako](#) udalek diruz lagunduko zaituzte. Eskualdean dauzkagun euskaltegietan [eskaintza](#) zabala da. Gaur egun, berriz, norbere kasa ikasteko aukerak ere badira interneten. Hemen daukazue horietako batzuk. Denak doakoak.

- [AISA](#) ikastaroa on line edo euskaltegian egiteko aukera dago.
- [Santurtziko udal euskaltegiko webgunea](#): era guztietako ariketak, maila guztietan.
- [Hiru.com](#) (Eusko Jaurlaritzaren etengabeko ikaskuntzaren webgunea): gramatika azalpenak eta zuzenketak
- [Euskaljakintzaren webgunea](#): era guztietako ariketak eta EGako azterketak

## AKTIBO IZAN

[EUSKARAGILEAK](#) taldea sortu da [Kontseiluaren](#) gidaritzapean. Egun 13 enpresa eta erakundek osatzen dute euskararen normalizazioan aitzindari direnak. Talde honen helburua euskaraz saldu eta lan egin nahi duten enpresen sarea indartzea da eta euren ereduak ezagutzera ematea. *Batz, Cikautxo, Eika, Ekin, Elay, Fagor, Goizper Group, IMH, Irizar, Matz-Erreka, Mondragon Unibertsitatea Eskola Politeknikoa, Mondragon Korporazioa eta Orkli.*

